# IZIARKO AMA BIRJIÑA-RI

*Guazen Iziarrera*
*Mariarengana*
*Guazen bai ematera*
*Laztan gozo bana.*

Izar bat agertu da
Guziz pozgarria
Ara nola dagoan
Mendigan jarria
Poztu bada, bai poztu
¡O Euskal-erria!
Adi ezazu kontuz
Dakarren berria.

Illargia Zeruan
Daukanak oñian
Drist.. drist, egiten digu
Iziar-gañian;
Biotzian poza ta
Kantak mingañian
Onra dezagun ama
Au alegiñian.

*Guazen Iziarrera...*

Ikusirik Zerutik
Gure miseriak
Konsolatu nai gaitu
Birjiña Mariak
Pozturik bada justu
Ta pekatariak
Iziarrera zuzen
Ditzagun begiak.

Ichaso aserriak
Dakizu paketzen
Baita ere ekaitzak
Gugandik aldentzen
Ostarkua bezala
Zerala agertzen
Poz ematen diguzu
Ta beldurra kentzen.

*Guazen. . . .*

Ichas-gizonak beren
Estutasunetan
¡Ai! zein gogotik deitzen
Dizuten benetan
Galdu gordian larri
Beren azkenetan
Zenbiltzanak dituzu
Salba geyenetan.

Nekazariak ere
Nekeen sariá
Zugandik espero du
Birjiña Maria
Zure bendiziua
Da chit ugaria
Geitzeko batez ere
Arto ta garia.

*Guazen....*

Moroen mende zeuden
Kristauak, ichian
Eta ez ala ere
Denbora guchian
Ayen penak biotza
Zuri ukitzian
Jarri dituzu beren
Erri ta echian.

Gais̄oa oetikan
Gogotik da ari
Erreguz Iziar-ko
Ama Birjiñari
Osasuna biurtzen
Diozu berari
Egiñaz esan eziñ
Adinbat mirari.

*Guazen....*

Ezkondu aur gabeak
Dizute esaten
Erregutzeko zerbait
Irichi dezaten,
Zure bitartez aurrak
Dituzte izaten
Egun batez Zeruan
Ikusi ditzaten.

Eriotzako ordu
Estuan arkitu
Diranak badizute
Biotzetik deitu
Ayen deiak zuk oi
Dituzu aditu:
Zure biguntasunak
Zeruratzen ditu.

*Guazen....*

Ikusten dira asko
Soldadu gerrari
Erreguz iziar-ko
Amara Birjiñari
Eta zuk berriz konta.
Eziñ adiñari
Egiñ izan diztetzu
Mesede ugari.

Egunaz eguzki ta
Gaubean illargi
Egun sentian berriz
Izar eder argi
Sortzetik mancha gabe
Dana garbi-garbi...
Lurrean bizitzeko
Zera eder egi.

*Guazen...*

Pekataria baldin
Badago asiya
Pekituen gorrotuz
Eskatzen graziya
Denbora guzietan
Dago ikusiya
Iristen diozula
Nai duan guziya.

Noe-ren kuchatikan
Irten zan usua
Atzera eramanaz
Berri paketsua
Zu zera gaitz guzien
Senda-gai osua
Zu zera bai Maria
Ama chit gozua.

*Guazen....*

Ona zure aurrian
Ona Iziarren
Ona nun gauzkatzun; guk
Ez merezi-arren,
Zure anparu-pian
Ar-gaitzatzu erren
Zeruan sar-gaitezen
Mundu onen urren.

*Guazen...*

PEDRO MIGUEL DE URRUZUNO.

# DOLOR DOBLE.

(VERSOS CÓMPUESTOS CON MOTIVO DE LA MUERTE DE LA REINA DOÑA MERCEDES, OCURRIDA POCO ÁNTES DE LA DE LAS LIBERTADES BASCONGADAS.)

Han trocado mis ojos en fuente viva
dolores de mi amada tierra nativa,
y hasta por vez primera brotar han hecho
estos hondos dolores ódio en mi pecho;
pero aun así he llorado con desconsuelo
tu doloroso tránsito del mundo al cielo,
no porque fueras reina ni poderosa,
sino porque eras santa, jóven y hermosa
y en el dolor ajeno, me espanta el propio
cuando en mi única hija te veo y copio.

ANTONIO DE TRUEBA.